

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

09/11/20 | 312



- ⌚ Durangoko azokan izango direnak
- ⌚ Lapurretak Tolosan
- ⌚ Intxurre pilota eskola indartzen
- ⌚ SPraiko tranbia
- ⌚ Finalurreko bigarren faseari begira
- ⌚ Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

Aimar Agirresarobe

Tolosar bat Hawaiiiko  
ironman-ean




# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
gtolosa@aldamatapia.com  
www.aldamatapia.com

*Etxebarru zein  
kalerako lorak.*

*Lorategi lanabesak.*

*Lora legor eta  
apaindura tresnak.*

**Annelxe**  
LORATEGIA CB

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 -TOLOSA

## ERRETIRATUENTZAKO KANPAINA

www.multioplicasgipuzkoa.com

### MULTIOPTICAS

**1.A ZERBITZU OPTIKOETAN**

Betaurrekoak erosita,  
kalitate bereko beste lente  
batzuk dituzten betaurrekoak\*  
oparituko dizkizugu

\* Armazoiak oparituko ditugu, kalitate bereko lenteekin

©Marka hauek indararen egoerari da DNI 11308491. Ezin dabilen beste enkargu edo promozio batzuetan plazaratu.



Betaurrekoak erosten dituzunean  
pasa zaitez zure OPARIA hartzerara.

J. Carlos Guerra 1  
Tel. 943 79 29 95

ARRASATE

Ibargarai 16  
Tel. 943 76 15 75

BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS  
Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta 2  
Tel. 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7  
Tel. 943 51 78 11

ERRENERIA

Mendibil M. G.  
Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Erp.  
Tel. 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70

TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,  
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo  
 Banatzaileak: Olatz,  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Edurne Mendia  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOITIK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO  
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia: Letra eta doinu emaria Tolosaldeko Durangora

Udazkeneko zaparradak ez du etenik. Aurten 44. aldiz, euskal liburu eta diskoen argitalpen jakak Durangoko Landako Erakustazoka beteko du. Emari honek Tolosaldeko urak ere jaso ditu. Bertako idazle eta musikarien lan ugari izango dira azokako hiru kaleetan. Ondorengo erreportaitxoan bildu ditugu batzuk. Landakok abenduko zubian zabalduko ditu ateak, baina honen aurretik eta ostean ere, izango da ur hauetan bustitzeko aukerarik.

8-11. orrialdeak

«Gidari batekin bazoaz bidaia filma baten modukoa da. Ez duzu bertakoekin egon beharrik. Bidaietan bertako jendearekin harremana izatea da interesgarriena. Bidaia egin nuenetik monumentuak gutxiago interesatzen zaizkit; bisitatzen duzun herriko jendearekin hitz egin gabe bidaiatzea oso hotza da».

Elkarrizketa: Amaia Elosegi

16-18. orrialdeak

	Iritziaien leihoa: Bilgune feminista eta Andoni Egia	4-5
	Normalizazioa: Bai Euskarari zozketa	6-7
	Eskualdeko albisteak: Etxe eta komertzioetako lapurretak behera	12-13
	Eskualdeko albisteak: Intxurre pilota eskola indartzen	14-15
	Irakurlearen begietatik: SPRako tranbia	19
	Bertsolari Txapelketa Nagusia: Finalurrekoen 2. faseari begira	20-21
	Kirol salta: Aimar Agirresarobe Hawaiiiko Ironman-ean	22-23



Eider Elduaien Olazar  
Tolosaldeko Bilgune Feminista

4

Triangulotik Zabalerretara edo lurre auzora joateko taxia hartzen dute nire zenbait lagunek gauez parrandatik bueltan. Emakumeak dira denak eta gauez bakarrik etxera joateari beldur diote. Ez dute/dugu seguru, eroso sentitzen euren/geure burua gaueko kale hutsetan. Erasotuak izateko arriskua ikusten dugu, eta zenbaitek, askok, gehiegik bizi ere egin dute. Emakume izate hutsagatik gara erasotuak egun oraindik hemen, Euskal Herrian, Tolosaldean.

## Herri beldurgarriak

Espazioak pertsonen hartu emanetan duen garrantziaz ohartarazi digu Hiria Kolektiboak elkarrekin egin ditugun zenbait tailerretan. Espazioak, hiriak, herriak ez dira espazio hutsak, pertsonok erabiltzen ditugun biziguneak dira. Elkar harremantzeko erabiltzen ditugun guneak. Nik nire ingurunea, espazioa, ezagutzen dudanean eta bertan eroso sentitzen naizenean, banoa, jendearekin topo egin eta hizketan geratzen naiz edo ez, nire sentitzen dut gunea eta egin nahi dudana edo nahi ez dudana zein den erabakitzen dut. Seguru sentitzen naiz, lasai, aske eta autonomo. Ez dut beldurrik.

Baina azken urteetako eraikuntza azkarrak eta basatiak inoren lekuak, ez-lekuak sortu ditu. Kaleetan barna goaz, presaka igarotzen ditugu askotan, baina ez ditugu geure egiten, ez ditugu bizitoki. Leku batetik bestera joateko espazioak dira, besterik ez. Eta askotan hormigoizko horma altuen barna goaz, hurrengo kale ixkinean topa dezakegunaren beldur. Herriarrek bere egiten ez dituzten espazioak bizitarik gabekoak dira, anonimoak; ez da inor hango parte sentitzen. Eguneroko bizitari erreferentziarik egin gabe sortzen den hiriak segurtasunik gabekoa izateko

arriskua du; pertsonak ez dira elkartzen eta inork ez gaitu laguntzen ezagutzen ez gaituztelako.

Historikoki espazio publikoa gizonarena izan da eta pribatua emakumearena. Eta gaur egun dugun espazio publikoaren eredu nagusiak ez du gauzak aldatzen gehiegi laguntzen, emakumeok ez baikara eroso, seguru sentitzen bertan. Eta arrazoi handia du Hiria Kolektiboak dionean, "emakumeontzat seguruagoa den herria guztiontzat seguruagoa izango dela". Mapa teknikoaren gainean gurea propio egin genuen tailer haietan; gune beltzak kokatu genituen Tolosaren gainean, eta emakumeontzat beldurgarria den herria agertu zen bertan.

Berebiziko garrantzia du espazioak ere parekidetasunaren bidean urratsak emateko. Hori soilik ez da nahikoa, ordea. Gizon eta emakumeon arteko botere harremanak irauli ezean, ez da zapalkuntza, diskrimazioa eta indarkeriarekin amaituko. Kale ilun nahiz argizatuan, edota etxeke epelean erasotuak izaten jarraituko dugu. Ez gara ixilik geratuko ordea, ez dugu besoak gurutzaturik itxarongo. Elkartu, kaleak kolorez margotu eta ozen esango dugu kalea gurea ere badela eta aske ibili nahi dugula, auzoan, herrian, hirian nahiz munduan

## Azken baten tankeran

Beste batzuk gaiztok izateie, nik uste alue baiño puntu bat gorago egoten diela, beti txarra nola in pentxatzen daudenak ta ondoen pentxatzen duena aurrea emateuenak, ingurukoi bate errukik ez dienak, egurre bate erreparoi gabe emateuenak, ta ahulena oaindik aulegoa ingo duenak; hoik ala izanda beste batzuk onak die, onegik dios mundu alu hontan bizitzeko, baño aldi beren eskerrak gutxi batzuk badaren bestela? Normalen bizidun gustokuenak eta historiaz aurrea ematen duenak.

Beste batzuk nausik izateie, jaiotzen dien momentutik ingurrun jabe izateie eo ala uste due bintzat, manejatu behar dittuen hari guztiak ibiliko dittue bere ustezko botere hortan seitzeko; karo ta nausie daon lekun menpekoa -re urruti bare izatea, beti hanka azpin ibiltzeien hoitakok, teorin bizi alu honek ematen dittun etapa fuerteagotan e beti besten menpe darenak, egurre-egurre gainen jaso ta beti burue beran duela ibiltzeien hoitakok.

Beste batzuk langilek izateie, lana la otia! Jateko denboai gabe lanen aitzeinak, beti lanen eta beti lanak itteko daon hoitakoa, lotan hai dela-re ametxetan hurrengo euneko lanakin aittuko dena; ta hoixe batzu ala izateko beste batzuk alperrak izan behar derrigor, alperragoa zerrie baño -re, beti eonen altxatzen hasteien e berriz zanba eroitzeienak, hoingatik balitz eunek argittuko ez balu hobe!

Beste batzuk fiñek izateie, ingurue dana dalakoa izanda-re dena emateuena inguru horren

alde, naiz ta dena utzi behar duen helburue betetzeko egoerak muturrokoenean re bizia emango lukeenak; ta hoixe hortako beste batzuk faltxok izan behar, ne ustatan okerrenak, ta txarrena, nolakoa dan ezautu aurretik kriston esperantzak emateizkizula alde guzitatik. Kristona balitz bezela, ya, ya.

Beste batzuk kejatik izateie, eune jun ta eune etorri kanta berdiñekin ibiltzen dien hoitakok, beti ondoeza, eo eztakizer, ataik haizea dala...egoeraik obena balinga-re beti zerbaitt bauena.

Beste batzuk erabilik izateie, ingurukin oso gustoa ibiltzeie erabat itxututa erabiltzeittun horrekin beakin; geo halako golpek hartzeittue, erabiltzailleak normalen bere boterean seitzeko behar beharrezkoak dittu, beste batzuk harrok izateie, beti "hemen nao ni" esaten duen hoitakok, ingurue bere hanketan daola pentxatzen duena, aurrena ni ta geo ni alai (nere lagun batek esaten dun bezela "goiarro" batzuk).

Ta hola seitzen saiatu ezkeo beste makiñat egoera ateakoie, azkenen fisikoetaño allatuz handie, ttikie, pottoloa, plakoa, politte, txusie...

Ta azkenen esan nahi detena da animala ikullu bati begira jarrita norbeana bada hobe, badakiula egoera hoik denak ematen diela azken-fiñen ze antza dauken animala multzo batek, herri bateko edo inguru bateko jendeakin, nik behintzat hala iruittuta nao! Ez? eo ez altzeate identifikatuak sentittu? Egjie esan geo e?

Ta bukatzeko momentue aprobetxatuz ta denak ber-



**Andoni Egia**  
EHNE sindikatuko tolosaldeko koordinatzailea

Bada bat alu bat, ta alue markakoa gaiñea beti ingurukok nondik izorratuko ibiltzeana, gustokona izanda-re aluna joko diona, ba hoixe alue seitzen izateatik bakarrik; beste bat nerbiosoa izatea puñetero hoitakoa lo-re begi bat ikita itten dun hoitakoa, bazpare o eztakit ba? Ikuttu orduko salto bat ateatzen duena eo bere atzen ze pasatzean e ikusten duna; beste batzuk aurrekoai kontra iñez pastel hutxek izateie lasaiiii, pauso bat itteko-re pentxau itten duenak batematek beti zerbait itteko eo, erain in behar dion hoitakoa azkenaldin aitze deten hitz arraro hoitako baten jabe aproposa, "panfilo" hutxa alaie.

txotan entenditzen deula uste omen deun hontan, bertxo xar bat idatzikoet.

Norbera ibiltzen da  
Komeni dan eran  
Eunetikan eunera  
Aldatuz jarreran  
Kanbiatutzen gera  
Haizen araberan  
Behiak eta pertxonak  
Alkarren tankeran!



# Iritsi da aurten ere «bai euskarari»

Urtero bezala aurten ere jarri du Galtzaundik abian «Bai Euskarari» Zozketa. Gizarte eragile asko dira Galtzaundirekin elkarlanean euskararen normalizazioaren alde lanean jarduten duten enpresa, denda, erakunde eta instituzio desberdinak.

Hauen fideltsauna eskertzeko urtero Galtzaundik antolatzen duen ekimena da Bai Euskarari zozketa. Euskararen alde lanean ari diren eta Bai Euskarari Ziurtagiria duten saltoki guztietan Galtzaundik boletoak banatzen ditu, eta saltoki hauek aldi berean boleto hauek beren bezeroen artean banatzen dituzte. Bezeroak saltoki hauetan erosten dutenean, boletoak jasotzen ditu eta ondoren, urtearen bukaeran zozketa egiten da.

Aurten hiru izango dira zozketatuko diren sariak:

- Gau bat gosariarekin bi lagunentzat Orduñako bainu etxean, BIDAIDE bidai agentziaren eskutik.
- Bi lagunentzako afaria Adunako ZABALA sagardotegian.

- Bi lagunentzako afaria Astigarragako IRETZA sagardotegian.

Sariak eman behar dituzten hiru eragile hauei eskertu behar diegu beraien laguntza, eta baita GIPUZKOAKO KUTXARI ere, ezinbestekoa baita horrelakoen laguntza ekimen hauek aurrera eramateko.

Zozketa abenduaren 22an egingo dugu, eta hiru zenbaki saridunak Galtzaundi Aldizkarian agertuko dira. Ordezko zenbakiak ere aterako dira, saridunak hilabete epean azalduko ez balira erabiltzeko. Beraz, saridunek Galtzaundira joan beharko dute txartela saridunarekin urtarrilaren 22a baino lehen. Bestela, ordezko zenbakien berri emango da.

6



# ri» zozketa!!

K u l t u r e k i t a i d i a k

## Azaroak 24 Unai Elorriaga

Literatura hitzaldia

Azaroak 24: Unai Elorriagaren hitzaldia "Londres kartoizkoa" da bere azken eleberriri buruz. Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian, 20:00etan.




## Abenduak 13 Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa

Abenduak 13: Autobusa goizeko 8:30ean irtengo da Tolosako tren geltokitik. Finala 11:00etan hasiko da eta 9:30ean zabalduko dituzte BECeko ateak. Itzulerara saioa amaitzean izango da (20:30ak inguruan). Izen ematea Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa Etorbidea 6). Prezioa: Galtzaundiko bazkideek 9 euro; bazkide ez direnek 12 euro.

## Abenduak 5 Durangoko Azokara joateko autobusa

Goizeko 9:00etan irtengo da autobusa Tolosako tren geltokitik. Itzulera, 19:00etan izango da. Izen ematea Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa Etorbidea 6). Prezioa: Galtzaundiko bazkideek 9 euro; bazkide ez direnek 12 euro.



## BENTA ALDEA

JATETXEA

TEL.: 943 654 079  
ANOETA  
-TOLOSA BIDEAN

T X O K O L A T E G I A



K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

## shanti kirolak

Rondilla, 11 bis  
Tel.: 943 674 074  
Tolosa



*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



errotatxo  
okindegia

Andia kalea, 3      Amaro, 9-A  
Tel.: 943 655 492      Tel.: 943 671 038







# Letra eta <sup>9</sup> doinu emaria

## Tolosaldetik Durangora

Leire Zubeldia

Udazkeneko zaparradak ez du etenik. Aurten 44. aldiz, euskal liburu eta diskoen argitalpen jasak Durangoko Landako Erakustazoka beteko du. Emari honek Tolosaldeko urak ere jaso ditu. Bertako idazle eta musikarien lan ugari izango dira azokako hiru kaleetan. Ondorengo erreportaitxoan bildu ditugu batzuk. Landakok abenduko zubian zabalduko ditu atea, baina honen aurretik eta ostean ere, izango da ur hauetan bustitzeko aukerarik.

## Jack destripatzailearen arrastoa

Joxe Mari Iturralde  
Ibaizabal argitaletxea

14 urtetik gora dituzten gaztetxoentzat idatzi du Joxe Mari Iturralde tolosarrak "Jack destripatzailearen arrastoa" nobela beltza. Misterioz eta intrigaz bustitako istorioa da hau.

Patrizio Dagerrezahar da protagonista. 1888. urtean gaude. Patrizio Ameriketara doa osabarengana. Itsasontzian egingo du bidaia. Baina Londresera iritsi baino lehen jada, dena lapurtuko diote, eta Londren lehorreratzea beste erremediorik ez du izango. Ez du hiria ezagutzen, eta nahi gabe Whitecahpel auzo arriskutsuan barneratzen da. Artean, auzo honetan krimen izugarriak gertatzen ari dira. Jack destripatzailea delako bat da gaizkilea. Patriziok uste du badakiela nor den Jack, eta bere arrastoari jarraituko dio.



## Riskyren ipuin politenak

Joxe Mari Iturralde  
Elkar argitaletxea

Ezagun dira jada Riskyren abenturak. Bada orain, Riskyren abenturarik onenak biltzen dituen liburu batekin dator Joxe Mari Iturralde egilea. Marrazkiak Mattin-ek egin ditu eta Xaguxar sailean argitaratu du Elkar-ek. 10 urtetik aurrerako gazte-txoei zuzenduta dago.

Arturo irakasleak, liburuetan irakurritako istorio ederrenak kontatzera animatu ditu bere ikasleak. Bakoitzak gustuko dituen abenturak kontatuko ditu. Baina horrelakoetan beti gertatzen da gauza bera: istorioak kontatzen hasi eta gehiago nahi izaten dela, ezin dela gelditu. Horixe gertatuko zaie Risky eta bere lagunei.



## El Filtro

Jon Mintegiaga  
Txalaparta argitaletxea

Jon Mintegiagaren lehenengo liburua da Txalapartak argitaratutako El Filtro lana. 1994. urtean, Montebideo hiriburuko El Filtro ospitalearen aurrean milaka herritar elkartu ziren, gose greban zeuden Josu Goitia, Luis Mari Lizarralde eta Mikel Ibañez preso euskaldunei babesa eskaintzeko. Elkarretaratzean asilo eskubidea errebindikatu eta preso euskaldunak Espainiara ez estraditatzeko eskaria egin zuten. Uruguayko polizia indarren errepresioak Fernando Morróni eta Roberto Facal gazteen heriotzak eragin zituen. Gertakari hau ardatz hartuta, Uruguayko herriak euskaldunetara izan zuen elkartasunaren kronika egin du Jon Mintegiagak.

Liburuak dvd bat dakar berarekin. Bertan, gertakariari buruzko erreportai bat ikus daiteke, jazotakoaren irudiekien, eta lekukoaren testigantzekin.



## Urperatze handia

Karlos Linazasoro  
Elkar argitaletxea

Edozein adinetako irakurleentzat egoki gerta litekeen literatura freskoa argitaratzen dute Ateko Banda sailaren zigiluarekin. Karlos Linazasoro idazlearen azken lan hau ere bilduma honetan sailkatu dute.


Jubilatu koadrila bat aukeratu du Linazasorok istorio honetako protagonistatzat. Irla batean galduta gertatuko dira. Muturreko egoera honetan idazlearen kezak azalduko dira: komunikatzeko ezintasuna, ezjakintasuna... Ironia eta umorez betetako pasarteak irakurri daitezke bertan. Egoera absurdo batez barre egin daitekeela frogatzen du.



## Manuel Iradier. Afrikako arimaren esploratzailea

Ramon Olasagasti  
Elkar argitaletxea

Manuel Iradier esploratzaile gasteiztarraren figura berreskuratu nahi izan du Ramon Olasagastik, eta horregatik argitaratu du bere biografia. Berrobotarraren hitzetan, "Manuel Iradier gure esploratzailea" izan da. Gasteiztarrak bi bidaia egin zituen Afrikara. Ez hura konkistatzeko; herrialdea ezagutu eta esploratzeko baizik. Agian, gure artean hain ezaguna ez den gasteiztar hau historiako orrietan egoteko saiakera xumea da.



## ... arteraino

Iker Goenaga  
Ez dakienak baleki

Bere aurreko diskoak Elkarrekin kaleratu bazituen ere, "... arteraino" lan berria kaleratzeko autoekoizpena aukeratu du Iker Goenaga trikitilariak. Horretarako sortu du Ez dakienak baleki zigilua. Durangon Elkar banaketak-ek jarritako stand-ean aurkituko duzu.

Disko honetan 11 kantu bildu ditu, "Amorrúa", aurreko laneko soinu elektronikotik urrundu eta instrumentu bakoitzaren sonoritatea baliatzen saiatu da. Ohi bezala, Joseba Sarrionandia eta Koldo Izagirrerren hitzak, zein Gartzot Unsainen ahotsa ekarri ditu lan honetara ere.



## Leidor Sessions CD-DVD

Bide Ertzean

Gaztelupeko Hotsak

Ez da erraza hamar urteko ibilbidea osatzea. Are zailagoa da, ibilbide hori proposamena finduz, estiloa zehaztuz eta taldearen berezko ukitu bat lortuz egitea. Hori dena lortu du Bide Ertzean talde tolosarrak. Hamargarren urteurrena behar bezala ospatzeko kontzertu berezi bat eskaini zuten urtarrilean Tolosako Leidor aretoan. Bertan grabatutako zuzeneko soinuarekin disko bat kaleratu berri dute. Bertan entzun ahal izango dira Bide Ertzean taldeak hamar urte hauetan sortutako kanturik onenak.



Hori CD-an. Baina DVD-an taldeari buruzko dokumental bat aurkituko du entzuleak. Besteak beste, Gorka Urbizu, Kirmen Uribe, Jose Luis Otamendi eta Kaki Arkarazoren adierazpenak bildu dituzte.

## Eromena zor dizut...

Desordutan

Bonberenea Ekintzak

Labetik atera berria da Desordutan talde tolosarren bigarren diskoa. Eromena zor dizut... lana Bonberenean aurkeztuko dute azaroaren 27an. Bete betean pop-rock estiloan sartzen diren 10 kantuz osatuta dago diskoa. Estilo aldaketarik ez bada ere, aurreko lanarekin alderatuta, proposamen biziago eta rockeroago bat da disko berria, baina batez ere, disko honetan laukotearen alde egindako apustua da nabarmenena: azken urteetako kontzertuetan zazpikote bezala taularatu dira, haizezko instrumentuak jotzen dituzten Bonberenea Txarangako kideekin batera. Lan honetan euren oinarritzko formazioa berreskuratu nahi izan dute. Hala ere, bi kantuetan sartu dituzte zaleek hain gogoko dituzten haizezko instrumentuak. Beste berezitasun bat da, eurak egindako letrez gain, besteak beste Iñigo Aranbarri, Joan Aldamizetxebarria eta Eneko Aranburu idazleen hitzak musikatuta dituztela.



## SANTAMARIA



### Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA



**Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak**

Apaiz-Erreka, 5  
20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878  
Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60

**Martin  
Eceizabarrena**

Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

## ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA



Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

emakaren  
sematoroa  
euskararen sematoroa  
blogspot.com

**OSM**  
Informatika

Ordenadoreen salmenta  
eta konponketa

Tolosa OSM Informatika S.L.  
Rondilla 48 behea - 20400 Tolosa  
Telf. 943 650 206  
tienda@osminformatika.com



Bizikleta eta ibilgailuen barruan utzitako objektuen lapurretak igo egin dira; berdin aurrezki kutxako txartelaren erabilpen iruzesgarriak ere.

# Etxe, enpresa eta komertzioetako l

“Lapurreta pila bat gertatzen ari omen dira”. Nork ez du ha-lakorik entzun kalean? Jendeak lapurretak ugaritu diren inpresioa du. Hori egiaztatzerako joan da Galtzaundi Tolosako Udaltzaingora. Herritarren usteak eta Udaltzaingoak dituen datuak ez datoz bat. Etxe, enpresa eta komertzioetako lapurretak nabarmen jaitsi dira. Udaltzaingotik mezu lasaigarria bidali nahi dute.

Leire Zubeldia

Lapurretak ematen direnik ezin da ukatu. Urte hasieratik, lapurretak direla eta, 70 salaketa jaso dituzte Tolosako Udaltzaingoa. “Honek ez du esan nahi ordea, 70 lapurreta kasu eman direnik.

Lapurreta saiakerak ere kopuru honen barruan sartzen ditugu”, argitu du Luis Mari Lasa Tolosako Udaltzaingoaren Segurtasun Koordinatzaileak.

Herritarrak lasaitu nahi ditu. Izan ere, eremu pribatue-

tako lapurretak gutxitu egin dira. Hauek dira ondasunen aldetik kalterik handiena eragiten duten lapurretak. Aldiz, ugaritu egin dira bizikleta eta auto barruko objektuen lapurretak, zein aurrezki kutxako txartelen erabilpen iruzurtiak.

## Gutxitu egin dira

Etxeetan, komertzioetan eta enpresetan ematen diren lapurreta kasuak nabarmen gutxitu dira azken bi urteetan. “2009an, 9,3 puntutakoa izan da etxeetan egindako lapurreten batezbestekoa. 2007an ordea, 16 puntutakoa zen, eta 2006an 18-koa. Hiru urteetan erdira jaitsi gara”.

Azken urtean Tolosako komertzioetan eman diren lapurreta kasuak ezagun egin dira jendartean. Zabaldutako ustearen aurka, hauek ere jaitsi egin dira. “Uste dugu, komertzioetan egindako hainbat lapurreten atzean ekialdeko mafia bat egon dela. Enkarguz egiten zituzten lapurretak. Markako erropa, zapatak, betaurrekoak eta abar lapurtzen zituzten, eta gero euren herrialdera bidali han saltzeko”. Antza denez, mafia hauek desagertu egin dira inguru hauetatik. Gehien bat komertzioetan jazotzen diren indarkeria eta beldurrarazte bidezko lapurretak ere gutxitu dira. “Adin Txikiko Etorkinen Zentroa itxi zenetik nabaritu da jaitsiera hori. Horrekin ez dugu esan nahi ekintza guzti hauen egileak zentro horretakoak zirenik”, azpimarratu du Lasak,

eta gaineratu du, lapurreten atzean atzerritarrak ez ezik bertakoak ere egoten direla.

Zergatik jaitsi dira lapurreta hauek? Lasaren ustez faktore asko daude. “Guk ere zaintza areagotu egin dugu, bai egunez eta bai gauzez. Horrek eragina izan dezake. Lapur-taldeek badakite gainean gaudela, eta honek izutu egiten ditu”.

## Ugaritu egin dira

Talde antolatuek egiten dituztenak, aurretik prestaketa bat eskatzen duten lapurretak gutxitu diren bezala, berehala eta bakarka egiten diren ebasaketak ugaritu egin dira; “batez ere azken sei hilabete hauetan”, zehaztu du Lasak.

Asko ugaritu dira bizikleta lapurretak. Kalean dauden bizikletak hartu eta furgoneta batean sartzen dituzte. “Donostian bizikletaz betetako furgoneta bat aurkitu zuten duela gutxi”, gaineratu du.

Azkenaldian, pertsona asko atzeman dituzte kalean aparkatuta egoten diren auto-karabanetan. “Baina hauek ez dira lapurretak izaten. Gaua bertan pasatzeko eta zerbait jateko sartzen dira auto-karabanetan”. Ibilgailuen barruan dauden objektuak ebastea ere ohiko bilakatu da. Jertseak, betaurrekoa, musika erreproduktoreak... izaten dira lapurren jomuga.

Bestalde, aurrezki kutxako txartelak lapurretarako tresna balagarriak dira. “Hauek profesionalak dira. Bluetooth bidez txarteleko datuak kopiatze-





# Lapurretak gutxitu egin dira

ko mekanismo bat daukate". Dirurik ezin dute atera, baina nonbait, balio handiko erosketak egiten dituzte Canada eta Estatu Batuetako merkatuan. Sare handi batean barnean egiten dute lan.

Azkenik, udaltzaingoak zorro-lapurrekin (karterista) arretaz ibiltzeko aholkatu du. "Azoketan, Inauterietan eta oro har, jende asko ibiltzen den lekue-tan argi ibili beharra dago. Iaz diru-zorro asko lapurtu ziren. Aurten gutxitu egin dira lapurreta kasu hauek, baina hala ere, ebasleari ez zaio erraztasunik eman behar. Komertzioei ere aholku bat eman nahi izan die: "Tolosan diru faltsua dabilela konturatu gara. 20 eta 50 euroko bileteak dira. Denda bakoitzean diruaren egiazkotasuna ziurtatzeko detektore bat izatea gomendatzen dugu".

## Lapurretak sahiesteko aholkuak

### Komertzioetan:

- Dendatik ateraterakoan (eguerdian zein gauean) ondo itxi establezimendua: persiana jaitsi, alarma konektatu eta abar.
- Alarma bolometrikoak (lokal osoa detektatzen duena) erabiltzea gomendatzen da.
- Banketxera dirua sartzera joateko ordutegiak, egunak eta bideak etengabe aldatu.
- Poltsak eta norberaren gauza pertsonalak ez dendan eduki, eta are gutxiago erraz hartzeko moduan.
- Ixteko ordutik aurrera establezimenduan geratuz gero, ziurtatu denda ondo itxita dagoela; inor ez sartzeko moduan.

- Establezimenduko sarrera eta ate guztiak begiratu eta zaindu.

### Etxean

- Etxetik ateratzean, beti, zerraila itxi. Ez da nahikoa atea bultzatzearekin. Zerraila emana ez badago 30 segundu nahikoak dira atea zabaltzeko.

### Kalean:

- Zorroa edo poltsa atzealdean edo sahietsen eraman ordez bularraren parean eraman behar da.
- Diru-zorroak ez bistan eraman. Adibidez erosketa orgatxoan ez da eraman behar.
- Kontuz diru faltsuarekin. Azkenaldian kasu batzuk detektatu dira.

## ALDATZ Kristaldegia

**Mota guztiako beirak**  
Bainu eta dekoraziorako  
ispi-luak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-ixturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



## Saldias Miguel

### CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoko

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)



**BERTSOLARI**  
TXAPELKETA NAGUSIA

[www.txapelketa-nagusia.eu](http://www.txapelketa-nagusia.eu)

Azaroak 29, igandea  
17:30ean  
Belodromoa  
DONOSTIA

ERRO GORRUTLAGA ERNE ALBERDI  
MIGUEL ELIZABETH AITZOLARRITZA  
JONI HERRERA BERKARTO ELLI BALBIDE



laguntzaile: galtzaundi



## Juan Larrazpu eraikuntzak, s.l.

• Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esturketan adituak.

• Etxeen berrikuntzak:  
- Fatxadak - Teillatuak -  
Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966  
Jon Arruti (Orio)



**Tolosa Bit**  
Informazioa Zerbitzuak  
Ordezkariak eta konpainiak  
Egilea eta jarduaren erantzulea  
Materiazkoak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
[tolosabit@facilnet.net](mailto:tolosabit@facilnet.net)  
[www.tolosabit.es](http://www.tolosabit.es)



Alegia, Altxo eta Ikaztegietako pilota eskolak Intxurre elkartearen batu dira

# Indarrak bateratu, pilotari gazteei p

Norabide berean arraunean ari diren indarren elkarketak askoz emaitza hobekak eman ditzake, bakarka lanean aritzeak baino. Herri honetan lezio hori ikasteko oraindik asko falta zaigun arren, badira batzuk ikasgaia ondo ikasi eta praktikan ere jarri dutenak. Alegiako, Altxoko eta Ikaztegietako pilota eskolek elkarrekin lan egingo dute aurrerantzean, Intxurre pilota eskolaren baitan. Asmoa, oso garbia: pilotan aritu nahi duten gazteei proiektu hobea eta eraginkorrago bat eskaintzea.

Amaia Goikoetxea

Alegiako, Altxoko eta Ikaztegietako pilotari gazteak elkarrekin ari dira lanean irailaz geroztik. Euren pilota eskolak bateratu egin dira, eta orain guztiak Intxurre pilota eskolako pilotariak dira. "Hara, eta zergatik hartu du Alegiakoaren izena?", galde lezake norbaitek. Bada, ez, ez da hori arrazoia. Jose Luis Zabala, Jexux Murua eta Joxean Urretabizkaia dira hiru herrietako ordezkariak, eta beraiek eman digute izenaren inguruko azalpena: "Intxurre izena ez hartzekotan, elkarrekin bat sortu beharra zegoen, eta elkarrekin propioa izateak betebeharrak fiskal eta administratibo asko eskatzen du. Lehen urratsak emateko errazagoa da jada legezaturik dagoen elkarrekin bateratzea". Garbi dago beraz; ez dago inongo protagonismo nahirik kontu horretan.

Hasiera batean, klub berri bat sortu edo ez zalantzan ibili ziren. "Estatutuak, IFK (Identifikazio Fiskalerako Kodea) eta antzeko elementu fiskal eta administratiboak Intxurre elkartearenak ditugu. Klub berri bat sortzekotan hori guztia berritu egin behar zen, eta saltsa handiegia zirudien". Horrela, Altxoko eta Ikaztegietako pilotariak ere Intxurre klubean eman dute izena, eta beste bi herri horietako klubei baja eman zaie federazioan.

Horrez gain, Intxurre elkarteak Intxurre izena daramaten kirol taldeei urtero diru-laguntza emateko erabakia hartu izanak ere izan du bere eragina izenaren afera horretan. "Noski, diru-laguntza hori jasotzeko Intxurre izena eraman behar duzu, eta beraz, beste aitzakia bat gehiago izan da izena hartzeko". Hiru klubetako bateratze prozesua nahiko erraza izan omen da, batik batik, hirurek pilota eskolak izan behar duenari buruzko ikuspegi berdina dute-lako. "Helburu bera dugu, alegia, umeen artean pilotazaletasuna bultzatzea, eta pilotan aritu nahi duten guztiei horretarako aukera ematea, mutila ala neska izan".


"Proiektu osoago bat eskaintzeko"

Elkarri lagunduz, proiektu eraginkorrago bat bultzatzeko indarrak batu asmoz hartu dute bateratzeko erabakia hiru pilota eskoletako ordezkariak. "Entrenamendu egokiak egin eta lehiaketan kategoriatan guztietan parte hartzeko pilotari kopurua bermatu ahal izango dugu bateratze honen bidez", azaldu digute. "Horrekin

14



Alegiako festetan egindako jaialdiaren taldeko argazkia.





# Proiektu hobea eskaintzeko



Gabonetako pilota topaketako parte hartzaileak.

batera, baliabideak (monitoreak, pilotalekuak, dirua) optimizatuko ditugu, kudeaketa lana erraztuko dugu eta herritarrei proiektu oso eta egokiago bat eskaintzeko moduan izango gara”.


Intxurre pilota eskola gogoia duten neska eta mutil guztiei irekia dago, eta pilotarien heziketa eskaintzen die gaztetxoek, pertsona nahiz pilotari gisara. Esku pilota lantzen dute nagusiki, baina palaren ildoak zabaltzeko aukerarik ere bada, batez ere, neskei begira. Horrez gain, emakumeen artean Euskal Pilotaren praktika sustatu eta ahalbidetu nahi dute. “Pilota praktikatu eta trebezia garatu nahi duten guztiei eman nahi diegu horretarako aukera: heziketa, formakuntza eta errendimendua, azken hau bakoitzaren ahalaren arabera, noski”, azpimarratu dute hiru herrietako ordezkariak. Horretarako, batetik, pilotari bakoitzari bere bidean lagunduko diote, horrela haren bilakaera ahalbidetuz, eta bestetik, Pilota Elkargoak antolatzen dituen txapelketetan parte hartzeko aukera emango diote.

Alegiako, Altzoko eta Ikaztegi-tako gazteei ez ezik, pilota eskolak inguruko herrietako gazteei ere zabaldu dizkie bere ateak. Horrekin batera, beste pilota elkarteekin elkarlanerako bideak jorratuko ditu. “Bide horixe lantzen ari gara Zaldibiako pilota eskolarekin eta Tolosako Aurrerarekin. Zaldibiako kadeteek Intxurrekin entrenatu eta jokatu dute, eta infantilei gurekin entrenatzeko aukera eskainiko zaie, gutxi baitira beraien artean moldatzeko. Gure jubenilek, aldiz, Aurrerarekin jokatu dute, kasu honetan, guk gutxi ditugulako”.

## 41 pilotari

Pilota eskola berriaren antolaketa dagokionez, hiru herrietako ordezkariak osatzen dute Zuzendaritza edo Koordinazio taldea, parte hartu nahi duten guztientzat irekia dena. Kudeatzaile-ordezkaritza Jose Luis Zabalak hartu du. Entrenatzaile lanak, berriz, honela banatu dira: alebin eta infantil mutilak eskuz Jexux Muruarekin eta Jose Manuel Floresekin ari dira, infantil

neskak palaz Jexux Muruarekin, kadeteak eta jubenilak Jose Manuel Floresekin eta nagusiak Joxean Urretabizkaiarekin.

Une honetan 41 pilotari dabilta Intxurre pilota eskolan, 34 mutil eta 7 neska, eta entrenamendu saioak mailaz-maila egiten dituzte, Alegiako, Altzoko eta Ikaztegi-tako pilotalekuetan. Intxurre pilota eskolako pilotariak Gipuzkoako Pilota Federazioak antolatzen dituen lehiaketa ofizial guztietan hartuko dute parte, eta horrez gain, hainbat txapelketa pribatutan lehiatzeko aukera ere eskainiko zaie; kasu hauetan pilota eskola bera arduratuko da izen-emate eta gainerako tramiteak egiteaz. Erakustaldi-saioak ere egingo dituzte hiru herrietan, baita eskatzen dieten gainerakoetan ere. “Horrez gain, urte amaieran Gabonetako Topaketak ospatu ditugu inguruko herrietako pilotariak gonbidatuz, (benjamin-aurrekoetatik hasita). Eta Altzoko, Kale Beherako, eta gainontzeko herri mailako txapelketak ere urteroko egitarauaren barruan izango ditugu”. 

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

**Zumardi**

SEGUROS  
BILBAO

Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877



**kutxa**

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Bere bi pasioak, natura eta kirola uztartzeko balio zan dio irakaskuntzak Amaia Elosegiri

# Amaia Elosegi

**“Asiako bidaia egin nuenetik monumentuak gutxiago interesatzen zaizkit”**

Felix Aiestaran

Amaia Elosegi (Tolosa, 1966) hemezortzi urte zituela Madrilera abiatu zen INEF ikasteko asmoz. Kazetari-tza ere egin zuen, baina artikuluren bat edo beste idazten duen arren, ez zuen hortik jo. Duela hemeretzi urtetik heziketa fisikoko irakaslea da. Irunberriko institutuan natur jarduerak lantzen ditu: oinez, eskiz, zaldiz, piraguaz... Natur gidariak izan nahi duten gazteei naturarekiko duen maitasuna kutsatu eta irakasten die. Yoga irakaslea ere bada; beraz, barne bidaiaz ere badaki zer-bait. Amaiak, Esther Mugertzarekin Turkiatik Birmaniaraino egindako urtebeteko bizikleta bidaia kontatzeko aukera izan zuen “Txirringaren aienean” liburuan. Ondoren gazteei egokitutako “Asiakleta” idatzi zuen. Baditu liburu teknikoak ere: “Ibiltari” eta “Oinez, zaldiz eta bizikletaz”. Utziak ditu hainbat poz eta samin eman zizkioen txirringularitza, iraupen eskia eta triatloia, baina mendiaz gozatzen jarraitzen du.





**Mendi zaletasuna familiatik jaso duzu...**

Aita, aitona, osaba... Oso zaleak dira eta familiarekin ttikitatik mendian ibili izan naiz. Oso ttikitatik Aralarko Igaratzara joaten ginen urtero, Aste Santuetan-eta, anai-arrebok lagun batzuekin batera. Laino itxia zela Unako Putzuarainoko joan-erriak egiten genituen. Oroitzapen polita dut hemezortzi urte nituela aita eta biok Mont Blanc igotzeko egin genuen saiakeraz. Ni alturako gaitzak jo ninduen eta aita ere gelditu egin zen. Aita sasoiari dago eta (orain) beste saioa egitera gonbidatu dut. Orduan niregatik ez zen igo eta orain ilusio handia egingo lioke.

**Zer da Aralar zuretzat?**

Mendirik kuttunena da. Ttikitatik oroitzapen asko ditut. Niretzat leku magikoa da. Edozein eguraldirekin ikusgarria da. Bertako behi, behor zein ardiak zintzarriak gogoratzen ditut. Lainopean den edozein pagadik Aralar gogorazten dit. Kareharrizko beste edozein inguru karstikoan nagoenean, ttikitako Aralarreko oroitzapenak etortzen zaizkit burura.

**Euskal Herria Natura aldetik toki pribilegiatuan dago, ezta?**

Oso pribilegiatuak gara. Kilometro oso gutxian Baztaneko klima heze eta bustitik Bardeetako ia basamortua den ingurura pasatzen gara. Atzera berriz Pirinioak oso kilometro gutxira daude, mendi klima bizi ahal izateko.

**Kirolean ere aritua zara: bizikleta, iraupen eskia, triatloia...**

Ikastolatik atletismoa egiten hasi, eta gero, iraupen eskia, bizikleta eta triatloian aritu nintzen.

Kirol lehiatik asko ikasten da, batez ere pertsonen arteko harremanak: besteak errespetatu eta elkarbizitzen. Ni ez nintzen asko irabazten zuen horietakoa, baina irabaztea ez da garrantzitsua: parte hartu, leku berriak ezagutu... Elitera iritsi gabe kirol lehia onuragarria da.

**Kirolean nahikoa aitzindariak izan zineten garai hartarako, ezta?**

Beste lau neskekin batera bai Euskadi eta bai Espainiako lehen emakumezko txirrindulari taldean parte hartu nuen, Seat-Orbea taldean, alegia. Triatloian ere lehendabizikoak izan ginen. Gogoan dut, Hernaniko Atletikoa osoa triatloi proban azaldu nintzenean, emakumezkoen saria inprobisatu egin behar izan zutela. Iraupen eskian Alpin-Uzturrekoekin lehiaketetan hasi ginen. Baldintza kaxkarretan aritzen ginen, baina eskiaz oroitzapen oso onak ditut. Gaur egun ere, oinez ibiltzearekin batera, iraupen eskian aritzea dut gogokoan. Triatloian gogor entrenatu beharra zegoen, kirola droga modukoa bihurtzen ari zen eta bi urte egin ondoren utzi egin nuen.

**Zein da kirolaren lekua gaurko gizarteetan?**

Oinarritzko kirola osasungarria den modura, eliteko kirola ez da osasungarria. Eliteko kirolaren inguruan mugitzen den dirua, diskurtsoa... ez dut gogokoa. Kirola bere osotasunean hartu behar da.

**Kirol lehia utzi eta mendia beraurkitu zenuen...**

Astebururo Pirinioetara joaten hasi nintzen lagunekin. Oinez ibili, eskalatu eta neguan

mendi eskia egiteari ekin nion. Pirinioez ez naiz inoiz nekatuko. Pirinioetan jendea beti toki berberetan ibiltzen da; horrek pena ematen dit, baina aldi berean horrek beste milaka txotkotan bakarrik ibiltzeko aukera ahalbideratzen du. Mendiak barne bake handia ematen dit. Pirinioek parapente, eskalada eta beste hainbat emozio biziartzeko aukeraz gain, edertasuna eman didate.

**Nola sortu zen bizikleta hartu eta Asiako beste muturreraino joateko asmoa?**

Nik betidanik izan dut bizikleta hartu eta Hirugarren Munduko herrialderen batera joateko asmoa. Amets eder horiek pertsona egokiek uztartu behar dira. Asiara bidea abiatzeko aukera izan nuen Estherrekin batera. Hasiera batean jende gehiago geunden, Tolosako bat ere bazen tartean. Elur eraun-



Oinarritzko kirola osasungarria den modura, eliteko kirola ez da osasungarria.

**Zure bizibidean natura eta kirola lotu ahal izan dituzu...**

Zorionez, bai. Nik ez nuen irakaskuntzatik bizi nahi. Aterpe egitasmoa diputazioan aurkeztu eta kasurik ez zidaten egin, ikastaroak eman nituen, Arratibelen bidez Alemanian ikasketetan sakondu nuen... Patuak irakaskuntzara eraman ninduen azkenean. Ni orain oso pozik nago eta oso gustukoa dut nire lana, gazteei naturarekiko dudana maitasuna eman diezaike dalako.

tsi betean, Iratiko sutondoan geundela Karlos Ortiz de Zarate eta Nerea Linazasoro bere neska lagunarekin batera Itsaso Beltzari bira emateko asmoaz hitz egiten hasi ginen, bisatuak zirela eta ez zirela. Istanbultik abiatu ginen. Karlos, Nerea eta Txebis tolosarra hilabete baterako abiatu ziren. Happy gali-zarra ere bildu zitzaigun. Asmoa ez genuen argi. Nepalera joan nahi genuela bagenekien, baina Estherrek eta biok jarraitu egin genuen, herrialde ba-



Bidaiak, aurreko bizitzaren aroa eta ondorengoa bereiztu zituen

koitzean bisatua emango ote zigutenaren kezka.

#### Nolako bizipenak izan zenituen Birmaniarako bizikleta bidaian?

Oso aberasgarria eta gogorra izan zen. Momentu onak bizitza osoan gogoratzeko modukoak dira eta txarrak berriz muturrekoak izaten dira. Kultura eta hizkuntza arrotzak dira. Elkarbizitza oso ona izan genuen ordea. Bigarren hilabeterako Happy-ri bizikleta hondatu eta utzi egin behar izan zuen. Eshter eta biok hilabete pare bat ingeles batekin egin ondoren hurrengo zortzi hilabeteak biok bakarrik egin genituen, oso ongi.

#### Bertakoek nolako harrera egingen zizueten?

Oro har oso ona eta hainbat herrialdetan biok emakumeak izatean halako konplizitatea sentitu genuen. Europako erdibidean egonik Turkia izan zen okerrera. Gizonek emakumeekiko duten jarrera dela eta, Turkian susto batzuk izan genituen. Erabat musulmanak diren

Iran eta Pakistanen aldiz, ez genuen arazorik izan. Ia egunero etxeetan lo egiten genuen, zuten gutxia guri eskaintzen ziguten. Koranak atzerritarrei gutxienez hiru egun ez aterpe eman behar zaiela agintzen du. AEBren filtroaz informazio okerra iristen zaigun arren, Irango jendea zoragarria da. Kurdistanen tanketak eta Pakistanen toke de keda zegoen eta tren hartzera behartu gintuzten. Tibetean ez zegoen ia asfaltorik. Bertako paisaia zoragarria zen, baina bertan Txinak Tibet mendean hartu zuenean ihes egin ezin izan zuen jendea zegoen: zahar jendea eta ezindu asko. Alkoholismo latza zegoen.

#### Bukatu ondoren zein balantze egin zenuten?

Gaixotu egin nintzelako bukatu zen bidaia, hamabi hilabete eta gero. Bidaiak, aurreko bizitzaren aroa eta ondorengoa bereiztu zituen. Gauza txikiak aintzat hartzen ikasi nuen. Hemen denetik dugu eta hala ere kexatu egiten gara. Ez dugu kezatzeko eskubiderik.

#### Bidaia idazteko jautzia nola eman zenuen?

Argian eta beste aldizkarietan idazten nuen zerbait lehenagotik ere. Lagun baten bidez, Txalaparta argitaletxeak liburua egiteko aukera eman zidan. Txirringaren Aienean idatzi genuen Esther eta biok. Gero, gazteei zuzendutako Asiakleta idatzi nuen. Beste bi liburuak teknikoagoak dira Ibiltari eta Oinez, bizikletaz eta zaldiz egiten dudana lanaren inguruan.

#### Nolako harrera izan dute liburuek?

Liburuek harrera ona izan zuten alde batetik emakumeak izatean, nolabaiteko morboa ere egoten delako helduen aldetik. Horrek asko saltzen du. Urteak pasa ondoren ordea, idazle kontsokratua ez bazara, zure liburua berehalaxe zahartu eta desagertu egiten da.

#### Bidaiaz zer ikasi behar dute gazteek?

Mendira joan eta gazteek ez dute behatzeko gaitasunik. Irakastea guraso eta irakasleen



Gustukoa dut nire lana, gazteei naturarekiko dudana maitasuna eman diezaiekedalako.



lana da. Horren azkar mugitzen garen mundu honetan bidaia-tzea ere, presaka egin behar den zerbait bihurtu da. Gidari batekin bazoaz bidaia filma baten modukoa da. Ez duzu bertakoekin egon beharrik. Bidaietan bertako jendearekin harremana izatea da interesgarriena. Bidaia egin nuenetik monumentuak gutxiago interesatzen zaizkit; bisitatzen duzun herriko jendearekin hitz egin gabe bidaia-tzea oso hotza da.

#### Jendeak ez al du behar barne bidaia gehiago?

Bidaia hartan munduko erlijio nagusiak pasa genituen: kristautasuna, islama, budismoa, hinduismoa... Geroztik yoga egiten hasi nintzen. Bidaiak kanpora egitearen garrantziaz gain aberastasunik handiena gure barruan dugu. Gure burua ez dugu ezagutzen, baina erantzun guztiak gure baitan ditugu. Denok zoriontsu izan nahi dugu. Gizarte honetan gauza material guztiak ditugu, baina nor da zoriontsu, hemen, gauzak pilatzearen errotan sartuta gauden garai honetan? Aseezinak gara. Ekialdeko herriak materialki pobreakoak izan arren espiritualki askoz ere aberatsagoak dira. Hurrengo egunean jatekorik izango duten jakin ez arren irribarre egiteko gai dira.

## Irakurlearen begietatik



Jone Gorostarzu

Irakurlea

Samurra, barregarria, goxoa, nahasia... ez da erraza Lucas, liburu honetako protagonistaren mundua deskribatzea. 93 urteko agureak denboraldi luzea egin du ospitalean ebakuntza bat dela eta; ebakuntzak ez dio arazorik emango, baina burua galtzen ari da, medikuen esanetan. Erotzen, edo. Horrela, inguru, denbora eta espazioarekiko bere ikuspegi propioa sortuz joango da gizona, eta irakurlea orriz orri unibertso horretako biztanle bilakatuko da.

# Unai Elorriaga, SPrako Tranbia

Non da, izan ere, errealtatea eta ametsaren, egiazkotasun eta oroitzenaren, oraina eta lehenaren arteko muga? Nobelan zehar marra oso lausoa ageri da alde hauen artean, eta tonu guttiz surrealista batek lagundurik irakurlea guttiz eroso, etxean bezala kasik, sentituko da Shisha Pangmaren, kuku erlojuaren, etengabeko presentzia duen telebistaren, hildako eta bizien artean. Anaia zenak egindako bastoiak, don Rodrigo sitsak eta orain 50 urte kendutako tranbiak ere osatuko dute, besteak beste, eszenatoki xeble bezain gertuko hau.

Zer esan pertsonaiei buruz? Maria, Lucasen arreba, pazientziak, irribarrez, eta, sarri, algaraz hartzen du anaiaren mundu nahaspilatu. Dramatismo zein etsipen

arrastorik gabe. Bi zaharrek etxean apopilo hartutako musikari gaztearekin, Marcosek, eta honen neska lagun Romarekin laukote berezia osatuko dute, zoriontsua, bizitzari ume begietatik eta xalotasunetik begiratzen dakiena. Hor dabil heriotza ate joka, baina ez da inor saiatzen giltzaz sarraila ongi ixten. Aldiz, badirudi pertsonaiek dantza egiten dutela Herioren inguruan, Lucasek hain gustoko duen tango bat bailitzan.

Aipagarria, bestetik, idazleak literaturari buruz egindako gogoetak. Zertarako idatzi? Nola? Zergatik? Lucasek burua ez galtzeko, Mariak bere gaztetako ametsari uko ez egiteko... Denek idazten dute liburuan. Gainera, izen handiko idazle kuttunak ere gonbidatu ditu bidaia honetara Elorriagak, hala nola

Proust, Rulfo, Borges edota Kafka.

Poesia da liburu guztia, hitz lauan idatziriko poesia zoragarria. Esaldi bakoitza da ederra, lehenengotik hasita "Lucasek klorofilazko txiklearen kolorea ikusten zuen hormetan". Ironia, umorea eta sentimenduak neurri paregabearen uztartu zituen algortarrak bere lehen lanean, eta emaitza paregabea da.

Mimoz egindako liburua da, detailerik txikiena ere zaindua, irakurraldi bakoitzean zerbait berria eskaintzen duten horietakoa. Modu berean, baina, irakurleari ere lana eskaintzen dion nobela da, ez baita literaturarekin gozatzea idazlearen lana soilik. Nobela eskuartearen duenak, beraz, ezin du besterik gabe gertaeren bila doan begiradarekin irakurri, hasiera,

korapiloa eta bukaera ulertzearekin konformatu. Pauso bat haratago egin behar du magiaz beteriko tranbiara igotzeko eta etengabe errepikatzen zaizkigun elementuak munduaren parte egiteko, unibertso ero baina gozo bat sortuaz. Baina saiakerak merezi du. Izan ere, ahaleginez eginarekin gehiago gozatzen da gero; Shisha Pangmako gailurrera ere inor ez nekatu gabe igotzen.



## Aitor Mendiluze, finalerako bidean

Azaroaren 7an, Bergaran kantatu zuen irurarrak eta saio eder-  
rra egin zuen. Iruñean eman  
beharko du orain finalerako  
behin betiko urratsa.

Igotz Alkorta

Labegarieta kiroldegia labeak adina berotu zen azaroaren 7an. Horren erantzuleak oholtza gainean izan ziren 6 bertsolariak, eta bereziki Maialen Lujanbio hernaniarra. Erakustaldi aparta eskaini zuen Lujanbiok, eta ondo merezita eskuratu zuen orain arteko puntuazio altuena, 708 alegia. Bigarren, eskualdeko ordezkaria, Aitor Mendiluze izan zen 680 punturekin. Agian, goia jo gabe, baina saio ederra egin zuen Mendiluzek ere. Ondoren

geratu ziren Beñat Gaztelumendi eta Jon Martin gazteak, 644,5 eta 619 punturekin. Biek egin zuten azpimarratzeko moduko lana. Al-diz, ez zuten egun onena Etxahun Lekuek eta Fredi Paiak, eta biek agur esan diote txapelketari.

### Hasieratik, ondo

Lehen ariketa puntugarritik hasi zen gozamen festa. Lekue eta Paia aritu ziren lehenik, gehiegi asmatu gabe, baina ondoren ale ederrak utzi zituzten Aitor Mendiluze eta Jon Martinek. Haurdun dauden bi emakumeren paperean kantatu zuten, A gripearen txertoa hartu edo ez zalantzan. Martinek haurrak ostikada bidez baiezkoa esan diola adierazi ostean hauxe Mendiluzeren erantzuna:

*Nik ere hemen jarri eskua  
ta neureak ere dale  
baina neurea izan dedila  
ondo dagoen seinale*

Ariketa honetan azpimarratzeko Lujanbio eta Gaztelumendik egin zuten lana. Zortziko handian eurek egin zuten saiorik onena.

### Mikrofonorik gabe

Saioak ere izan zuen bere anekdota. Zortziko txikian Jon Martin eta Maialen Lujanbio ari zirela argia joan eta oholtzan mikrofono gabe geratu ziren. Bi bertsolariek ordea, kantuan segi

zuten eta gainera ederki aprobe-txatu zuten egoera. Mendiluzeri dagokionean, 8ko txikikoa izan zen agian bere saiorik ahulena, baina hemen ere baleko lana egin zuen Lekuerekin batera. Ondoren berriz, puntu erantzunetan maisua dela argi utzi zuen. 3rak erantzun zituen ederki. Hauxe lehenengoa:

*Behobian korrika  
Hemezortzi mila  
denak azkar joateko  
sekulako pila  
ta Donosti ez dago  
nahi bezain hurbila  
ondo prestatu dena  
iritsi dedila*

6 puntuko motzeko ariketan ere bikain aritu zen Irurarra. Gizona jubilatua zaion emaztearen paperean kantatu zuen. Hauxe lehen bertsoaren azken zatia:

*Lehen bazina ta bazendu  
Zure fata nabarmendu  
Orain denbora eman didazu  
Eta amasa kendu*

### Laboa Bergaran

Kartzelako ariketa iristerako, saio bikaina izaten ari zen impresioa zabaldua zegoen bertsozaleen artean. Lujanbio ikusten zuten gehienek lehen lekuan, eta kartzelakoaren ostean inork gutxi izango zituen zalantzan. Mikel Laboak ezagun egindako "martxa baten lehen notak"

### 18 sailkatuak

1	Maialen Lujanbio	708,5 puntu
2	Amets Arzallus	704 puntu
3	Aitor Mendiluze	680 puntu
4	Jon Maia	679 puntu
5	Miren Amuriza	655,5 puntu
6	Julio Soto	652 puntu
7	Aitor Sarriegi	651 puntu
8	Sustrai Colina	646 puntu
9	Beñat Gaztelumendi	644,5 puntu
10	ñaki Zelaia	643,5 puntu
11	Uxue Alberdi	637,5 puntu
12	Jone Uria	634 puntu
13	Onintza Enbeita	631,5 puntu
14	Arkaitz Estiballes	630,5 puntu
15	Igor Elortza	629 puntu
16	Unai Iturriaga	626 puntu
17	Iñaki Gurrutxaga	626 puntu
18	Jon Martin	619 puntu

kantua doinutzat hartuta egin zuen ariketa hernaniarrak. Lan bikaina izan zen, hasi eta buka. 6 bertsolariak argazkilari paperean jarri zituen gaiak. Debekeatutako manifestazio batera joan den argazkilariaren lekuan jarri zen Lujanbio. Lehen bertsoan kantatu zuen kaskodun batek ezer ez zela pasa esan ziola. Hona bigarren bertsoaren amaiera:

*Polizari aurre eginez  
nere argazkilari sena  
espaloi hutsak atera eta  
esplikatu leike dena  
nahiz eta ez dela ezer pasa  
den esaten didatena  
pasa ez denak erakusten du  
sarri asko pasa dena.*

Txapelketan oroitzen den bakarkako lanik onenetakoa



egin zuen Lujanbio. Horren ondoan itzalean geratu bazen ere, Mendiluzek ere azpimarratzeko moduko ariketa egin zuen:

*Baina sentipen arraroa da  
Batzutan gogor xamarra  
Denek bi begi itxitakoan  
Nik bat zabaldu beharra*

Honenbestez finalean hanka terdi dute Lujanbio eta Mendiluzek. Irurarrak Iruñean izango du final erdian bigarren saioa eta Lujanbio berriz Donostiako belodormoan kantatuko du azken final erdian, hilaren 29an. Jarrai dezala gozamenak. ©

## Errusiar Mendia Tolosan izan da

Tolosaldeko herritarrek bikain erantzun zioten txapelketaren deia. Sartu ezinik geratu ziren ere izan ziren.

Txapelketak badu zerbait berezia eta hori argi geratu zen azaroaren 14an Tolosan jokatu zen final erdian. Saioa hasi baino ordu erdi lehenago aretoa beteta zegoela esan daiteke. Jendeak horrela erantzunda, bertsolariak ere parean aritzea falta zen, eta seirak aritu ziren txukun Tolosan. Sustrai Colinaz gain, Uxue Alberdi, Igor Elortza, Iñaki Gurrutxaga, Ainhoa Agirreazaldegia eta Iker Zubeldia izan genituen kantuan. Bitxikeria gisa, doinu berriak ere entzuteko aukera izan genuen. Esaterako, agurretan Iker Goenagaren kantu bat erabili zuen Gurrutxagak.

### Euskaldun zaharra

Saioa berotzen zortziko txikian hasi zen, horretarako maisu den Iker Zubeldiak eta Sustrai Kolinak egin-dako ofizioarekin. Gaiak EGA titulua

atera ezinik dabilen euskaldun zahar-raren paperean jarri zuen Zubeldia, eta Colina berriz, aurreko aldiatan suspenditu zion aztertzailea. Hau-xe Zubeldiaren lehen bertsoaren amaiera:

*Orain nik egin dizut  
laguna frogea  
maisua ba al dakizu  
zer dan artxarea?  
Hauxe Colinaren erantzuna:  
Nik ezin dizut esan  
zer dan artxarea  
suspenditu duzula  
badakit ordea*

Ariketa honetan baleko saioa egin zuten Agirreazaldegia eta Alberdik. Aldiz, ezinean aritu ziren Gurrutxaga eta Elortza. Elortzak gainera, azken emaitzan zeresana izan zuen potoa egin zuen.

Puntu erantzunak berriz, ia guz-tiak izan ziren ederrak. Alberdi eta Colina dotore aritu ziren ariketa honetan, baina benetan Iñaki Gurrutxaga nabarmendu zen. Tolosa gai-

tzat hartuta jarri zizkieten puntuak bertsolariei. Txokolateaz ari zirela, hauxe Gurrutxagari jarri zioten bigar-rren puntua:

*Gorrotxategirena  
dugu sonatua  
Bai, nahiz gure etxean  
gutxi probatua  
eskaparate baten  
ongi paratua  
gero dator ikusi  
ta ezin pagatua*

### Etorkinen drama

6 puntuko motzean ere perla eder asko entzun ahal izan ziren. Gurrutxagak lan bikaina egin zuen, Colinak bezala. Hala ere, Igor Elortza eta Uxue Alberdik egin zutena izan zen agian, osatuena. Alberdi Marokon dagoen kamiolaria da, Igor berriz kamiioian muga igaro nahi duena. Hau-xe Alberdiren lehenaren amaiera:

*Nola esangoizut ezetz  
nik lanpostuan galdu dezaket  
duintasuna ez*

Elortzaren erantzunak ere txalo mordo jaso zuen:

*Ez galdera ez baldintza  
benetan ondo zabilta  
ordu erdi bat da zuretzat ta  
niretzat bizitza*

Kartzelako ariketetan inork ez zuen goia jo, baina maila oneko asko entzun genituen. Alberdiren xamurtasuna, Elortza eta Gurrutxagaren errealismoa, Kolinaren gordintasuna... Gaia-ri ertz askotatik heldu zioten. Azkenean, Colina garaile 643 punturekin, eta gertuan Alberdi, Elortza eta Gurrutxaga. Atzera-go eta txapelketatik kanpora geratu ziren Agirreazaldegia eta Zubeldia. Kiroldegiko irtee-ran seirek puntu gehiago me-rezi zuten ustea askoren artean, txapelketak ere berea baitu hori. Tolosa utzita, aurrera jarraitzen du orain errusiar mendiak, BEC-era bidean.

# Aimar Agirresarobe

## “Hawaii-en egotea sari bat izan zen niretzat, beraz, sariaz gozatzera joan nintzen”

Hawaii triatloiararen sehaska da. Horegatik, triatloilari ororentzat amets bat da Kona-ko irteeran egotea.

Aurten 1.800 triatletek lortu dute amets hori egi bihurtzea. Horietako bat izan da Aimar Agirresarobe tolosarra. Ingalaterrako Ironman-ean lortu zuen Hawaiira joateko txartela. Hura ezagutu, kirol honetako munduko onenekin lehiatu eta probaz gozatzea; asmo horiek sartu zituen maletan. Sentsazio onarekin atera zen uretatik, eta bizikletan ere pedal kolpe ona erakutsi zuen, azken kilometroetan erori, eta min hartu zuen arte. Oinazeari aurre egin, eta maratonia osatu ondoren iritsi zen helmugara. 9 ordu, 55 minutu eta 13 segunduko abentura izan zen.

Leire Zubeldia



Aimar Agirresarobe Hawaiiko helmugan.

Duela bi urte egindako elkarriketan aipatu zenuen kurtso honetan ironman bat egiteko gogoa zenuela: Esan eta egin!

Iaz egin nuen nere lehenengo Ironman-a; Nizakoa. Proba moduko bat izan zen. Egia esan esperientzia polita izan zen, gauzak nahi bezala atera ez zitzaizkidan arren. Hori normala dela uste dut. Oso zaila da lehenengo Ironman-ean dena ondo ateratzea: Tripako mina daukazula, ez duzula behar beste jan... Edozer gerta daiteke. Azken batean, hamar ordu

inguru irauten dituen abentura bat da, ez dakizu zure gorputzak nola erreakzionatuko duen. Nizako Ironman-a amaitu nuenean esan nuen ez nuela gehiago egingo, baina...

Baina beste bat egin zenuen...

Bai, Ingalaterrakoa. Abuztuaren 2an izan zen; data egokia niretzat. Gainera, Ingalaterra aukera ona zen bertako klima hemengoaren oso antzekoa baita. Aurreikusitako bezala, probarako tenperatura egokia izan

genuen eta ateri egon zen. Fisikoki ere oso ondo nongoen. Igerian eta bizikletan ibili ondoren, korrika abiatu nintzen hamabosgarren postuan nongoen. Hemen tripako minarekin hasi nintzen eta komunean geldialdiak egin behar izan nituen. Hala ere, oso jende gutxi aurreratu ninduen. Hanketatik oso ondo amaitu nuen proba, tripeko traizionatu ninduten. Pena horrekin, sailkapenari jaramonik egin gabe joan nintzen hotelera. Dutzatu,



afaldu, eta oheratu baino lehen sailkapena begiratzeari bururatu zitzaizkidan. Orduan konturatu nintzen nire adin tarteko denborarik onena egin nuela. Hawaiiira joateko txartela poltsikoan nuen.

**Abuztuaren 2an lortu zenuen txartela, eta urriaren 10ean Kona-ko irteeran zinen...**

Oso denbora gutxi da. Hawaiiiko Ironman-a helburu duten gehienek apirila edo maiatzaren lortzen dute sailkapena. Ingalaterrako proba egin ostean bi asteko oporrak hartu nituen. Gero, berriz ere martxa hartu, eta irailean topera entrenatzen aritu nintzen.

**Zein helbururekin joan zinen Kona, Hawaiiira?**

Niretzat sari bat izan zen Hawaiiiko Ironman-ean parte hartzea. Gozatzera joan nintzen. Han egondakoek kontatu zidaten izugarritzko beroa egiten zuela, hezetasun maila handia egoten zela, parte hartzaile kopuruarengatik proba bera estresagarria zela... Hala ere, oso lasai joan nintzen, eta ondo prestatuta. Hura ezagu-

tu, kirol honetan aritzen diren onenekin lehiatu eta ahalik eta gehien gozatzera zen nire asmoa.

**Egindako lanarekin ere gusturara? 10 orduetik jaitsi zinen...**

Hamar orduetik jaitsiz gero denbora ona egingo nuen pentsamendurekin joan nintzen. Egia esan, oso sentsazio onarekin egin nituen igeriketa proba eta bizikletako lehenengo kilometroak. Zoritxarrez, bizikleta ibilbidearen azken kilometroetan erori eta min hartu nuen. Erretiratzeko zorian egon nintzen; ozta-ozta eragiten nien pedalei. Neure buruari gogor egin, eta ttipi-ttapa helmugarainokoak egin nituen. Gainera, nahiko denbora txukuna egin nuen. Galdera bat daukat oraindik buruan: erori izan ez banintz, ze denbora egingo ote nuen?

**Eta, Euskal Herriko distantzia laburreko lasterketa batean gertatu izan balitzaizu hori...**

Ziurrenik utzi egingo nuen lesio larriarik ez sortzeko. Baina Hawaiiiraino joan eta gero, amaitu egin nahi nuen. Buruan nituen baita ere, ordenagailuari begira nire berrien zain zeuden lagunak eta etxeokak. Irteeran egon ahal izateko uzten duzun dirua ere ez da huskeria. Prestatzen pasa duzun denbora... Niretzat frakaso bat izango zen proba ez amaitzea.

**Klima aldetik zer nolako baldintzak izan zenituzten?**

Bero gehiago egin izan du, baina freskoago ere bai. Profesional askok oinez amaitu zuten proba, eta horrek lasterka gogorra izan zela esan nahi du. Haizea ere egiten du, baina klima aldetik gogorra hezetasuna da.

**Zer moduz moldatu zinen horrenbeste jenderen artean?**

Hura mundu bat da: Bizikletak uzteko tokira iritsi, eta bizikleta bizikletaren gainean zegoen; ez zen amaierarik ikusten. Uretan berriz, azkar joaten banintzen ez nuen pasatzeko tokirik; mantso joaten banintzen aldiz, gainera pasatzen zitzaizkidan. Neurria hartu ezin ibili nintzen.

**Ironman-en artean gogorra Hawaiiikoa dela esaten da. Zerk ematen dio gogortasuna?**

Hori esaten da, baina nik uste dut gogorragoak badaudela; Lanzaroteko esaterako. Hawaii Hawaii da ordea: han sortu zen triatloia. Eta proba gogorra egiten duena? Klima. Hezetasuna %85ekoa da. Kirolarien mailak ere gogortu egiten du lasterketa. Tira egiten dizu, eta azkarrago joaten zara. Mundu guztiko onenak daude han. Baina proba hauek bakarkako lana egin behar da. Beste begira egoteak ez du ezertarako balio.

**Nola bizitu zenuen helmugara iritsi zineneko momentua?**

Bizikletan eta korrika pasa nituen miseri guztiak eta gero, herrira iritsi nintzenean neure buruari esan nion: sufritu duzun guztiarekin, amaitu egingo duzu; amets bat betetzen ari zara. Bestetik, pentsatzen nuen: helmuga zapaldu bezain pronto medikutara joan behar dut.

Hara joan aurretik eman zidaten beste gomendio bat, helmugako momentua disfrutatzeke izan zen. Oinazeak uzten zidan neurrian, helmugara iristeko azken zuzengune luzean gozatu egin nuen. Jende pila bat zegoen, eta gainera, banekien internet bidez etxeokak ikusten egongo zirela.



Horra iristeko egindako lan guztiaren oroitzapena buruan nuela igaro nuen helmuga. Marra zapaldu eta medikuarengana joan nintzen zuzenean. Etxekoek esan zidaten: Zergatik ez zara gehiago geratu helmugan? Ezin nuen, benetan.

**Zure hirugarren ironman-a izan da. Neurria hartu al diozu zeure buruari?**

Uste dut oraindik ez naizela probako hamar orduak konpetitzera iritsi. Nik normalean tripetako arazoak izaten ditut, beraz, kontu handiz ibili nintzen jatekoarekin. Baina dena hartu behar da kontutan: Eguzkiak gogor jotzen duenean boluntarioek eskainitako kremarekin babestea, gorputza hidratatzea... Akats txikiak ere dena izurratu dezake.

**Hawaiiiko Ironman-a behin gertatzen da bizitzan, edo errepetatzeko asmoa duzu?**

Joango nintzateke berriz, baina kasu horretan topera konpetituko nuke. Gastu handia da, beraz, zukua atera behar zaio. ©

## irakurri entzun Ikusi




Musika airean  
Karmele Jaio  
Elkar

Elena amonaxoari Latino Amerikako emakume gazte bat, Beatriz, ekarriko diote bera zaindu eta etxeko lanak egiteko. Bien arteko harremana izango da orainaldiko istorioaren ardatza. Lehenaldiko harreman bat ere kontatuko da ordea: Elena eta bere lagun Carmenen artekoa hain zuzen ere. Lagun minak ziren, baina haserretuta daude aspaldiko urteetan. Liburu atsegina eta irakurterraza da.

Begi berriak atzo gaueko irudientzat  
Kemen Lertxundi  
Gaztelupeko Hotsak

Bere burua disko liburu batekin aurkeztu, eta «aurreko lanaren garapen bat» eman du orain argitara Kemen Lertxundik, «Begi berriak atzo gaueko irudientzat». Bertan, «zuzenekoetan gorputza hartzen joan diren kantuak» bildu ditu, udan grabatu, eta orain, udazkenean, argitara emanak Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Hamar kantu berri, testu propioak eta Leonard Cohenen bertsiotzat jaso dituzte.

Sin nombre  
Zuzendaria: Cary Joji Fukunaga



Anjel Lertxundik idatzitako nobelan oinarritutako filmea da. Protagonista, Ane Igartururu, piano ikasketak egiten ari da, baina istripu baten ondorioz porrot egingo du ikasketetan. Hasi berri duen harreman sentimentalak ere mingarri egingo zaio. Ezintasun guzti honek lotura izango du gaztea zela ikusi zuen atentatuarekin.

# Azaroaren 20tik abenduaren 4ra arteko hitzorduak

## Erakusketak

Aranburu Jauregia

- Azaroaren 28tik abenduaren 6ra: Titirijai jaialdiko erakusketak: "Quebec-era leihoa."

## Zine Forum

- Abenduak 3: Rojo oriental filma, 19:15 eta 21:45.

## Zinea Leidorren

- Azaroak 22: G Force haurrentzako emanaldia, 17:00. 500 Dias juntos filma, 19:30 eta 22:00.  
- Azaroak 23: 500 Dias juntos, 20:30.  
- Azaroak 27: Si la cosa funciona, 22:30.  
- Azaroak 30: Si la cosa funciona, 20:30.

## Zinema Txiroaren jaialdia

Leidor

- Azaroak 24, 25, 26 eta 27: DVD proiektzioak Mugarik Gabe elkarteak antolatuta. Egutero, 20:00etan. Sarrerarik gabe.

## Ikuskizunak

Leidor

- Azaroak 20: Lur sagar dantza emanaldia. 20:30.

## Musika

Bonberenea


- Azaroak 20: Zura eta Hedoi Etxarte 20:30ean.  
- Azaroak 21: El desvan del macho eta Decapante, 20:30ean.



- Azaroak 27: Desordutan taldearen disko berriaren aurkezpena eta Innerve taldea 20.30etatik aurrera.  
- Azaroak 28: Basque country pharaons eta La otra gloria.

## Tolosaldeako II Emakumeen eta Migrazioen Komiki Lehiaketa

Tolosaldeako Garatzen-eko Inmigratio Sailak antolatutako komiki lehiaketa. Lanak aurkezteko epea abenduaren 30ean amaituko da. Oinarriak [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)-en dituzue.



## Titirijai, Nazioarteko Txotxongi-Lo Jaialdia

- Azaroaren 28tik aurrera: Egitarua [www.cittolosa.com](http://www.cittolosa.com) web gunean.



## Tolosako Babarrunaren Astea

- Azaroak 21: 08:00; XXII. TOLOSAKO BABARRUNAREN EKOIZLEEN LEHIAKETA. Trianguloa plaza. 09:00; AZOKA BEREZIA: babarrunak, piparrak, odolkiak, txerriak, ardoa ... Trianguloa plaza. 11:30; Tolosako Babarrunaren Ekoizleek Lehiaketako epaimahaiak bere lanari ekingo dio. Trianguloa plaza. 11:30; TXAPELA NORK ONDOEN JANTZI X. LEHIAKETA. Txinparta Elkar-tea (Arostegieta kalea).12:00; Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eskutik, Tolosako



## Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazioz atutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasierara data	Ordu Kopurua
IKT: Flickr, Blogger, Softonic, Wikipedia	2009/11/23	8
Erretzeari uzteko ikastaroa	2009/11/28	24
Arrisku handiko elikagaiak manipulatzeko agiria	2009ko Abendua	6
Fresagailu konbentzionalaren mekanizazioa	2009/12/09	20
Landa eremuan mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusien zaintzaileei bideratutako ikastaroa (2 ikastaro)	(1) 2010/01/11 (2) 2010/01/25	50
MIG-MAG soldadura posizio horizontalean	2010/01/12	50
CAD 2D (Autocad hastapena)	2010/01/12	40

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Teléfono: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: info@ikastn.com  
Webgunea: www.ikastn.com

babarruna jateko aukera. Trianguloa plaza. 12:30; IX. Babarrunaren Mus Azkarreko SARI BANAKETA. Trianguloa plaza. 13:00; XXII. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako SARI BANAKETA. Trianguloa plaza. 13:15; BABARRUN IRABAZLEAREN LAKARI BAT ENKANTEAN. Trianguloa plaza. 14:00; Babarrun jatea Tolosako Alde Zaharreko tabernetan, EZPELETA Ostalaritza Elkarteak antolatuta, 500 lagunentzat.

- Azaroak 22: 08:30; XXIII. TOLOSAKO BABARRUNAREN LEHIAKETA GASTRONOMIKOA. Zerkausia. 13:00; Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronmikoko SARI BANAKETA. Zerkausia. 14:30; HERRI BAZKARIA. Zerkausia.

## Liburu Azoka

- Azaroaren 21etik 28ra: San Frantzisko pasealekuan.

## Alegiako Udazken Kulturala

- Azaroak 20. Alegiako mapping party-a. Mapa festa: mapa osatu, poteoa eta afaria. <http://txintxarrisfera.ning.com>. Kultur Etxean 18:00.

- Azaroak 27: Bertso poteoa eta ondoren afaria Arkaitz Oiarzabal "Xamoa" eta Jokin Labayenekin. 19:00etan Intxurre elkarte.

- Azaroak 29: Mendi irteera eta bazkaria: Tolosa-Amasa-Villabona. 08:30ean.

## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 20</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Asteazkena, 25</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Astelehena, 30</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Larunbata, 21</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Osteguna, 26</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Astearte, 1</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa
<b>Igandea, 22</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Ostirala, 27</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 2</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
<b>Astelehena, 23</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Larunbata, 28</b> Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Osteguna, 3</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Astearte, 24</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	<b>Igandea, 29</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Ostirala, 4</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	(asteazk.)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Ur zerbitzuak (aberiak)	943 670 325
Medikua	lurreamendi egoitza	112
Bidegoian	Larrialdia, Suhiltzaileak	943 672 536
Medikua	DYA	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	Gurutze Gorria	
Osasun etxea		943 651 425
Ikaztegieta	Ertzantza	943 673 022
Medikua	Tolosa Gasa	943 675 320
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, Iarriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228



# SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA



## Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura ■ Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@Jel.es

## Beatriz

Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak  
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886 - 943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615 - 943 671 149

# Muxutruk

## Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesional-tasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15

## Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m2.. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

## Salgai

- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai 617 863 669
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa salgai. 617 863 669
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pinstxer arrazakoak). 645 703 634
- Iginiz markako akordeoia saltzen da. Taina erataina eta beltza. Berau eramateko gurditxoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Pertsona osatua zara, denetik egiten dakizu. Gauza bat falta zaizu soilik: Pazientzia. Telebista ez da kolpeak emanetz konponduko. Beroaldietan hotz pentsatzen ikasi behar duzu.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Giroa hozten ari den sasoi honetan zuk uste baino ahulago zaude. Bitaminak eta mineralak behar dituzu. Jan fruitu eta barazki asko, eta utzi alde batera aurrez prestatutako jakiak.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Oso sentibera egongo zara hurrengo egunetan. Arrazoi bat edo bestearengatik erraz har dezakezu mina. Saia zaitetz zure egoera horretaz jabetzen eta arazoei ahalik eta garrantzia gutxien ematen.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Lagun batek laguntza eskatuko dizu. Zail egingo zaizu berari ezertan laguntzea, eta horrek deseroso senti zaitzake: Saia zaitetz bere lekuan jartzten. Ariketa horrek funtziona dezake.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Egin duzun zerbaitengatik damua izango duzu. Jada ordea, ez dauka konponbiderik, beraz saia zaitetz ahazten. Nahiz eta bere urtebetetzea ez izan gustura hartuko du oparixto bat.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Denborarik ez daukazula eta, kexatzen igarotzen duzu zure zereginen antolaketan egiten pasa beharko zenuen denbora. Mendikuaren kontsultatik pasatzea egokituko zaizu.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Eman atsedena mugikorrari, bestela tentsioa igoko zaizu hilabete amierako faktura ikusten duzunean. Ez ohiko gastuekin ere kontuz. Lanean murrizketak egon daitezke, eta neurriak hartu behar dituzu.



## scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Urtea amaitu artean lanpetuta ibiliko zara. Ez zara konturatzen, baina estresa duzu. Egunero kirol pixka bat egiteak lagunduko dizu. Zortea zure alde dago; zergatik ez duzu kiniela egiten?



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Asko kostatzen zaizu barkamena eskatzea. Zergatik ez duzu afaltzera gonbidatzen. Batzuetan ekintzek gehiago esaten dute hitzek baino. Autoarekin arazoak.



## capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Igande arratsaldean astelehen bihurtzen dituzu zure lamentu eta kexuekin. Momentua bizitzen ikasi behar duzu. Edo bestela, bete itzazu igandek ekintza ezberdinekin.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Aste onak izango dira hauek ekimen berriak martxan jartzeko. Izarrak zure alde izango dituz hasten duzun bide berri horretan. Baina kontuz zure lana beraien onerako erabili nahi dutekin.



## piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Ezezkoak etsipena eragiten du batzuetan, eta beste aukera baten bila joateko motibazioa eta gogoia bestean. Zure kasua lehenengoa da. Automotibazioa garatu behar duzu. Momentu onak lagunartean.



## maite estetika eta kosmetika zentroa

### Diodo Laserra:

Azken generazioko Diodo Laserra, ilea edo biloa kentzeko eraginkorra.

- Erabateko eragina.
- Klimikoki frogaturiko depilazioa.

### Mikropigmentazioa:

- Akats txikiak konpontzen ditu eta zure bertute onenak nabarmentzen ditu.
- Ezpainak, bekainak eta betazalak (Eye Liner).

### Gabonetako oparia:

Jendea zoriontsu sentitzea nahi duelako oparietako bonoak sortu ditu Maite estetika eta kosmetika zentruak. Bonoekin zure lagun maiteei tratamendu estetiko aurreratuena eta produktu kosmetikorik hoberenak oparitu ahal dizkiezu.

Gabon hauetan oparitu osasuna eta zorientasuna!

Tfnoa. 943 670338 | Leitza kalea z/g Tolosa

**Maite**  
ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA  
ondo doakizu.

## GOITIK

- Web orriak
- Publizitate kanpainak
- Logotipoak / Irudi korporatiboa
- Liburuak / aldizkariak
- Rotulazioa

Jar zaitez gurekin harremanetan:

943 67 08 19

goitik@goitik.com

www.goitik.com

Korreo, 45 - Behea - 20400 Tolosa - Gipuzkoa



**www.citroen.es**

CITROËN. 5 ALDIZ MUNDUKO RALLIETAKO TXAPELDUN MUNDUKO ERREPIDE GUZTIAN TESTATUA ETA PROBATUA

**CITROËN C4 HDi**  
12.000€\*\*tik

**WRC**  
CITROËN prefere TOTAL  
\*FIA-ko emaitzen publikazio ofizialen zain.



CITROËN C3  
7.700€\*\*tik



CITROËN XSARA PICASSO  
HDi 13.300€\*\*tik



CITROËN C4 SEDAN  
HDi 7.100€\*\*tik



**CITROËN**  
CRÉATIVE TECHNOLOGIE

2000E PLANA APROBETXA EZAZU

+ TOTAL SEGURTASUN PLANA\*\*

HILABETE HONETAN, 2000E PLANA-REKIN, TXAPELDUN BIKOITZAREN TEKNOLOGIAZ GOZATU EZAZU.  
RALLIETAN 1. ETA SALMENTAN 1.\*\*

Kontsumo mistoa (l/100 Km) / CO2 emisioa (g/Km): C3: 4,46,1 / 115-145 C4: 4,46,9/115-175 Xsara Picasso: 5,07,3/130-172. Sedan: 5,2-7,6/136-179: (1) Autoen CGT matrikulazio datuak + 2009ko urrian gehiatazko konertzioak. \*\*PVP gomendatua C3 1.1 Airdream Furioa, C4 HDi 90 Airdream LX eta Xsara Picasso HDi 90 Airdream LX Plusa (argiak, garraioa, beharpena eta Plan 2000E berrak, laguntza publikoen esku-diru kobratuta osatuta) 2000E Planera gehitzen diren bezero partikulari zuzenduta. dagozkien Komunitate Autonomoan, hilabete bulareraino stock-ean dagoen automobilentzat. Beharpen ez gehigarriak. Itxialto modeloak: C3 Exclusivea, C4 Exclusive Plus eta Xsara Picasso Exclusivea. (2) Seguratasun plan osoa langabazari kobertura opari. Kreditu seguru eta hilabeteko auto seguru dalaran automobil berrak. Kreditu seguru Cardiff Assurance Vireekin kontratatuta, NIF zenbakia W0012421D duen Espainiako sukurtsala, DGS E-129ko Erregistro administratiboan izena emanda eta hilabeteko Auto Seguruo Axa Seguratasun Orokorarekin, S.A. Seguruo eta Berseguroak NIF zenb. A-60917978 duen Balaeretako merkatu erregistroan izena emanda; biak Banque PSA Finance Mandataria Espainako sukurtsal orokorren bitartekaritzaekin, ORIAS 07008501 zenbakarekin.

IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIA GUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA



**skunkfunk**  
people do funk

FALL WINTER 09

[www.skunkfunk.com](http://www.skunkfunk.com)

We believe in people's creativity.

**We want People do Funk.**

Skunkfunk Tolosa

Kale Nagusia 21-23

Etor zaituz SKFK ezagutzera, Skunkfunk-en linea berria